

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

“Sekulakotz galerak enetako dire”



Lepantoko gudua (1571) galeren arteko historiako itsas gudurik handiena izan zen. Arraunean aritzen ziren gizonak ez ziren soldadu libreak, preso kondenatuak baizik.

HAZPARNE (LAPURDI), 1815. Martin Larralde *Bordaxuri* galeretara kondenatu zuten, aita ustez tiroz hiltzeagatik. Handik hiru urtera, zigorra betetzen ari zela, gero Pantxoa eta Peiok ezagun bihurtuko zuten *Galerianoaren kantua* idatzi zuen. Handik hiru urtera hil zen. Hala dio lehen aha-paldiak:

*Kantatzera niazu alegera gabe,
ez baitut probetxurik, tristaturik ere;
nehun ebatsi gabe, gizonik hil gabe,
sekulakotz galerak enetako dire.*

Galeretako zigorra ez zen berria. Antzinaroan, Grezian eta Erroman ohikoa zen arraunerako esklaboak eta preso kondenatuak erabiltzea. Eta Bordaxurik bere sentipenak kontatu bazituen, Cartagenako (Murtzia) armategiko artxiboan galerianoei buruzko informazio xehea jaso zuten 1624tik 1748ra. Galeretako Liburu Orokorrak, 25 liburukiz osatuak, zaharberritu dituzte berriki, eta, horri esker, kondena krudelaren inguruko xehetasun ugari jakin ahal izan ditugu.

Eserlekura girgiluz lotuta egoten

ziren beti, eta hantxe egiten zituzten lo, jan eta bestelako behar guztiak. Itsas guduetan ez zituzten askatzen, eta, hala, galera hondoratuz gero, galerianoak ere harekin batera joaten ziren itsas hondora.

Oinutsik zeuden eta ilea larru-arras moztuta eramaten zuten, ihes eginez gero erraz ezagutzeko moduan; bide batez, zorriak saiheste-ko ere balio zuen neurriak. Egunean ogi egosi zati gogortu bat –bizkotxo esaten zioten, optimismo handiz–, baba eltzekari pixka bat eta ura ematen zizkieten bizirauteko.

Hilketa leporatuz gero, galeretan urte batzuk pasatzeko aukera zegoen, baina sexu delituak, edo garai hartan delitutzat jotzen zirenak, gogorrago zigortzen zituzten. Francisco Gimenez ijitoari zortzi urteko zigorra eman zioten hilketa leporatuta; Juan de Moralesek, aldiz, 200 zigorkada eta hamar urteko galera zigorra jaso zituen, *pecado nefando* delakoa egotzita, homosexuala izateagatik, alegia. ■



Arrastoak

Ed Kennedy:
albisterik onena
emateagatik
kaleratua

EDWARD KENNEDY Associated Press (AP) agentziako kazetaria izan zen alemaniarren errenditzearen berri ematen lehena, 1945eko maiatzaren 7an. Edozein komunikabidek amestuko luke Bigarren Mundu Gerraren amaieraren albistearen ematen lehena izatea, baina aliatuen ejertzitoak berria bahitu zuen, eta errenditzearen sinadura ekitaldira joandako hamazazpi kazetarietaz argitaratzeko esan zien. Europako hainbat tokitan soldaduek borrokan, elkar hiltzen jarraitzen zuten eta Ed Kennedyk albistearen zabaltzea erabaki zuen. AP agentziak kazetaria kaleratu zuen horregatik.

Orain, Kennedyn memoriak argitaratu berri direnean, APk barkamena eskatu dio publikoki, hark bere zeregina ederkiki bete zuela onartuz. Berandu: 67 urte joan dira kaleratu zutenetik, eta ia 50 Ed Kennedy hil zenetik.

AP

